



EGUNEKO DIANAK




Frantziako ekologistak

Igandeko bozketan botoen % 14 lortuta, Berdeak eta Ekologia Belaunaldia alderdien eragin politikoa indartu da, alderdi handiek ezingo bait dute agintzeko gehiengorik gauzatu beraiek kontutan hartu gabe. / 18



Albaniako Alderdi Demokratikoa

Albaniako Alderdi Demokratikoak botoen % 70 inguru lortu zituen hauteskundeetan. Gobernu berriak nazioarteko laguntza espero du erreformak aurrera ateratzeko. / 20



Txomin Ezponda

Txomin Ezponda nagusitu zen igandean Luzaiden egin zen Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren kanporaketan. Gartzelako bertso onenaren saria ere berak eskuratu zuen. / 25


Jeronimo Nazabal: «Aprobatua eman zidan irakasleak gazta baten truke»

LEIRE GAZTELUMENDI / OIARTZUN

Txiki-txikitandik aritu izan da Jeronimo ardiekin atzera eta aurrera, garai batean aitarekin eta egun emaztea eta semearekin. Hala ere, eta berak esan digunez, gaur egungo artzantza ez da garai batekoa bezalakoa. «Lehen askoz gehiago izaten ziren ardiak kanpoan eta noski, baita artzainak ere, eta euria, txingorra edo elurra jasan behar izaten zuten. Egundak, gehienetan barnean egoten dira ardiak eta jateko nahi adina alpalpa eta pentsu izaten dute».

Artzain gazte honi ez zaio edozein mendi gustoko, Aralarko mendiak, Zaldibia bere herriaren inguruan dauden mendiak, ditu gogokoen eta maiteen, beste edozein baino gehiago, «hango mendietako belarra askoz aberatsagoa delako, neurri batean —azpimarratu du—. Esnea emateko bertatik jan behar dute. Gainera, ez da horrenbesteko kotxerik ibiltzen» dio. Apiril aldean bertara joaten da ardiak, semea eta emaztearekin. Artzain hirukoteak bi hilabete ematen ditu urtero Aralarren, nahiz eta ardiek sei hilabete egiten dituzten bertako bazkatan belarra jaten. «Bertan oso gustora egoten gara gu baina han egoteko gustatu egin behar zaio bati» gehitu du.

Garai batean errepedeetan barrena ere ibiltzen zen ardiekin baina autoak edonora iristen direnetik ez, bidea arrisku bihurtu bait da: «Lehen makina bat aldiz ibilia naiz bideetan zehar baina gaur ardiak ateratzeko kamioian sartu behar dira edo bestela etxean kieto eduki». Bi aldiz pentsatu gabe, eta besteek ere gauza bera eginez gero, kotxea errekaratutako botako lukeela dio. «Kotxerik gabe



JUAN CARLOS RUIZ

SOSLAIA

Artzain hirukotea

Artzain zaldibitar honek aitari ikusita ikasi zuen ogibidea. Sei urterekin hasi eta hamalau urterako egin zuen bere lehenengo gazta. «Batek artzantzan aritzeko gogoko izan behar du, berezkoa izan behar du» baieztatu du Jeronimok. Bere familian, hiru anai-arrebetatik, berak bakarrik jarraitu die aitaren urratsei. Ardiek lan asko eman arren, gustora dabil. Denis bere emaztea eta semea mundu horren inguruan dabilta eta badirudi, momentuz behintzat, oso atsegin dutela zeregin hori. Etxekoandreak zera dio: «Benetako artzaina bera da».

ibiltzen ohituko ginatke eta lasaigo biziko ginatke».


Ardi jetsi eta gaztak egiten dituen bitartean irrifartsu ageri da, egunean zehar lan asko egin behar duen arren. Hirurehun bat ardi dauzka eta horiek atenditzeak denbora asko kentzen dio. Emaztea ez zuen, dantzan edo kalean ezagutu, ardiekin zebilela baizik. (Hortik egin kontu). Uda aldera denbora libre gehiago izango duela pentsa badaitke ere, ez da hala, negurako gauzak prestatu beharrean izaten da eta.

Gazte gaztetandik ari da artzantzan eta ez zela ia eskolara joaten, «oso gutxitan eta ez oso gustora» aitortu du. Baina aprobatauak lortzen zituen, hala edo nola. «Izan nuen azken irakaslea oso jatorra zen eta gazta baten truke eman zidan aprobataua. Hala ere, gidatzeko agiria ateratzeko ez nuen irakaslearen laguntza behar izan» esan du. Artzain izateko berezkoa du. Gaztak egiteko ez du termometroaren beharrik, eskuak esaten bait dio ura bere tamainan dagoen ala ez.

Zibilizaziotik urrun, mendian, ardi artean aurkitzen du Jeronimok lasaitasuna. Bertan daudenean apenas dute kontakturik kanpoko munduarekin. Beste zenbait artzain ere ibiltzen da paraje haietan baina ez omen dute gehiegi elkar ikusten, justu astean behin Ordiziako feriara jaisten direnean janari bila.

Artzainaren bizitza berezia eta gogorra da eta agian horregatik dago hain artzain gutxi. «Gaur egun ia ez da artzain gazterik agertzen. Jendeak uko egiten dio bizitza honi» azaldu du Jeronimok. Eta hain zuzen ere hiru anai-arrebetatik berak bakarrik jarraitu die aitaren urratsei.

irrimarra



© Jon Zabaleta

LERRO GUTXITAN

❑ «SOLDADUTZAN BESTE LAN IHARDUERA BATZUTAN BAINO ASKOZ GUTXIAGO DIRA ISTRIPUZ HILDAKOAK».

Espainiako Gobernuak atzo jakitera eman zuenez, 10.000 soldadutik % 1,19 hiltzen dira istriputan, beste lan ihardueretan kopuru hori % 1,56 den bitartean. Aurten hogeitabi gaztek galdu du bizia soldadutzan, horietarik hamalau trafikoko istriputan. Eduardo Rodriguez PPko diputatuak soldadutzan zenbat soldadu hil diren eta horien familiartekoei jasotzen duten kalteordaina zenbatekoa den galdetu zuen.

❑ **GAROÑAKO ZENTRAL NUKLEARRA IXTEKO** neurriak har ditzatela eskatu die IUk Castilla Leoneko Gorteei. IUkoen esanetan, Santa Maria de Garoñako zentrala Espainiako zaharrena da, teknologia zaharkitua duena. «Azkenaldian istripu asko izan dira eta horrek instalakuntzak hondatuak dituela erakusten du. Gainera, istripu edo aberia kasuetan ez da egungo araudia zorrotz betetzen eta horrek areagotu egiten du arriskua».

❑ **PENIZILINA SINTETIKOAREN ASMATZAILEA**, John C. Sheenan zientzilari iparramerikarra joan zen larunbatean hil zen Cay Biscainne-ko (Florida) bere etxean. Sheenanek 77 urte zituen. 1928an Alexander Flemingek asmatutakoa era artifizialean lortzeko modua aurkitu zuen 1957an beronek, hainbat urtetako ikerlanaren ostean.

❑ **BI ATRAKATZAILE** atxilotu zituen atzo Gasteizko Udaltzaingoak bertako Banco Atlantico banketxean lapurreta egin ondoren, lapurreta burutu eta berrogeitabost minututara. 610.000 pezeta (31.000 libera) zeramatzatzen aldean. Dagoeneko hamabi lapurreta izan dira aurten Gasteizko bankuetan eta lapurreta horiekin zerikusirik baduten edo ez aztertzen ari da Polizia.

ETA BIHAR

'Aberenia' obra Ibarlanen

Oztibarreko Antzerkia taldeak datorren igandean aurkeztuko du 'Aberenia' bere azken lana Nafarroa Behereko Ibarlanen. Georges Orwellen 'Animal Farm' nobela hartu eta moldatu egin dute Oztibarreko antzerkilariek. Eñaut Larralde taula zuzendaria eta hainbat aktoreekin hizketan izan gara obra berriaren inguruan.

ONCE

ASTELEHENA

99.833

ASTEARTEA
ASTEAZKENA
OSTEGUNA
OSTIRALA KUPOITZARRA